



Esp.kodea: 2015SMOZ0014

Gaia: Adierazpen Instituzionala, Siriako errefuxiatuen egoerari buruzkoa

ADIERAZPEN INSTITUZIONALA/ DECLARACIÓN INSTITUCIONAL

Europako herrialdeetarako migrazio fluxua errealitate geldiezina da azken urteotan, ezberdintasun sozialen, krisi humanitario eta ekonomikoen eta Afrikako, Europako Ekialdeko eta Ekialde Hurbileko gerra gero eta ugariagoen ondorioz.

Drama humanoa da, haien herrietatik ihesi datozen milaka eta milaka pertsonen heriotza eragiten duena. Hala ere, mundua lekuko isila da eta mendebaldeko agintarien ezintasuna eta geldotasuna gero eta nabariagoak dira.

Azken urteotan barne gerrek eta okupazio militarrek exodoak eragin dituzte Sirian, Iraken edo Afganistanen. Azkenaldian, horri beste errealitate bat gaineratu zaio, fanatikoa eta muturrekoa, Ekialde Hurbila ez ezik, Europako herrialdeak ere atentatu eta beldurra hedatzeko ekintzez kolpatu dituena.

Errealitate berri honen irtenbidea konplexua dela jakinda, onartezina da Europar Batasunaren eta haren gobernuetako agintari politikoen isiltasun mingarria. Gatazkek eta giza eskubideen urraketak eragindako migrazio fluxu honi ezin zaio erantzun alambre hesiez eta jazarpen militarrez, ezta bizirik jarraitzeko ihesi datozenei merkataritza kuota ezarrita ere.

Antzeko egoeretan, herritarren gehiengoak elkartasun aktiboa erakutsi eta justizia eskatu izan du; horixe egin zuen Balkanetako gerraren garaian eta horixe egiten du, oraindik ere, saharar herriarekin. Elkartasun horrek euskal jendartea ezaugarritu du, eta ezaugarritzen du oraindik ere.

Durante estos últimos años el flujo migratorio hacia países de Europa es una realidad imparable, a cada de las diferencias sociales, crisis humanitaria y económicas, y por las cada vez más numerosas guerras de Africa, este de Europa y Oriente Próximo.

Es un drama humano, que causa la muerte a miles de personas que vienen huyendo de sus países. Sin embargo, el mundo es un testigo silencioso, y la impotencia y dejadez de las autoridades occidentales es cada vez más patente.

Durante estos últimos años las guerras internas y las ocupaciones militares han provocados éxodos en Siria, Irak o Afganistán. Últimamente, a esto hay que añadir otra realidad, fanática y extrema, que también ha golpeado a los países de Europa con atentados y acciones para difundir miedo.

Sabiendo que la solución de esta nueva realidad es compleja, es inadmisibile el lamentable silencio de las autoridades políticas de sus gobiernos. A este flujo migratorio ocasionado por los conflictos y la violación de los derechos humanos no se puede responder con vallas de alambre y con acosos militares, ni tampoco estableciendo cuotas comerciales a las personas que vienen huyendo para seguir vivos.

La mayoría de la población ha exigido justicia y ha demostrado una solidaridad activa en situaciones similares; como por ejemplo en relacion a la guerra de los Balcanes y lo sigue demostrando hoy en día con en pueblo saharai. Esta solidaridad ha caracterizado y sigue caracterizando a la sociedad vasca.



Esp.kodea: 2015SMOZ0014

Gaia: Adierazpen Instituzionala, Siriako errefuxiatuen egoerari buruzkoa

Honengatik guztiarengatik Arrasateko Udalak honako ADIERAZPEN INSTITUZIONAL hau aurkezten du:

1.- Arrasateko Udalbatzak, Sirian eta inguruko herrialdeetan gertatzen den moduan, gatazka politiko eta militarretatik ihes egiten duten pertsona errefuxiatuak hartzeko prestutasuna adierazten du, iristen diren errefuxiatuen eskura udal zerbitzu guztiak jarriko dituelarik, baita konpromiso bera duten beste udal batzuekin lan egitekoa ere.

2.- Europar Batasunak krisi humanitario honetan erantzukizuna izanik, krisi honi modu aktiboan eta elkartzunez eta justizia humanitarioaz erantzuteko eskatu behar zaie Europar Batasuneko estatu kideetako agintari eta gobernuei. Gerra hauetatik ihes egiten duten eta tragedia honen biktima diren pertsonak hartzeko beharrezko bitartekoak bidera ditzaten ere eskatu behar zaie.

3.-Arrasateko Udalbatzak Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari tragedia honen aurrean jarrera aktiboa eta solidarioa har dezaten eta haren ondorioak arintzeko eskura dituzten bitartekoak bidera ditzaten eskatzen die. Dena den, erakunde bakoitzak ezin du bere kabuz jokatu, baizik eta erakunde ezberdinak elkarlanean aritu behar dira sortuko diren beharrei erantzun egokia emateko.

4.- Arestian aipatutako bi erakunde horiekin, hirugarren sektorearekin eta Euskal Lurraldeetako beste udal batzuekin lan egiteko konpromisoa hartzen du Arrasateko Udalbatzak, errefuxiatu hauek hartzeko tokiko sare bat egituratzeko.

Por todo ello el Ayuntamiento de Arrasate presenta la siguiente DECLARACIÓN INSTITUCIONAL:

1.- La Corporación de Arrasate, tal y como sucede en Siria y en los países de la zona, declara su disponibilidad para acoger a las personas refugiadas que huyen de los conflictos políticos y militares, poniendo a disposición de los refugiados que lleguen todos los servicios municipales.

2.- Teniendo en cuenta que la Unión Europea tiene responsabilidades en esta crisis humanitaria, hay que exigir a las autoridades y gobiernos de los estados miembros de la Unión Europea que responda a esta crisis humanitaria de modo activo y con solidaridad y justicia humanitaria. También hay que exigirles que dirijan los recursos necesarios para acoger a estas personas que huyen de estas guerras y que son víctimas de esta tragedia.

3.- El Pleno del Ayuntamiento de Arrasate, solicita a la Diputación Foral de Gipuzkoa y al Gobierno Vasco una actuación activa y solidaria ante esta tragedia, y que deriven los recursos disponibles a paliar sus efectos. No obstante, cada institución no puede actuar por su cuenta, sino que las diferentes instituciones deben actuar en colaboración para dar una respuesta adecuada a las necesidades que se generen.

4.- El Pleno del Ayuntamiento de Arrasate se compromete a trabajar con las antes mencionadas instituciones, el tercer sector y con otros Ayuntamientos de los territorios vascos, para configurar una red local que acoja a estos refugiados.



Esp.kodea: 2015SMOZ0014

Gaia: Adierazpen Instituzionala, Siriako errefuxiatuen egoerari buruzkoa

5.- Arrasateko Udalak lantalde bat sortuko du, zeinak elkarrekin edo erakunde ezberdinekin lan egingo duen, (hala nola, CEAR, Gurutze Gorria, Caritas, JAED eta abar) beren arteko erlazioa sustatuz, udal baliabideak koordinatu eta errefuxiatuen laguntzarako plangintza elkarlanean garatu dadin.

5.- El Ayuntamiento de Arrasate creará un grupo de trabajo que trabajará con diversas instituciones y asociaciones, (como CEAR, Cruz Roja, Caritas, JAED etc.) fomentando las relaciones con éstos, para la coordinación en la asignación de recursos municipales y la realización, en común, de un planteamiento de ayuda a los refugiados.